

6/2014 FORU ARAUA, ekainaren 11koa, energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergari buruzkoa (BAO Ekainaren 17koa)

Jakinarazten dut Bizkaiko Batzar Nagusiek 2014ko ekainaren 11ko Osoko Bilkuran onartu dutela 6/2014 Foru Araua, ekainaren 11koa, energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergari buruzkoa, eta arau hori aldarrikatu eta argitaratzeko agindua ematen dut, aplikatu ahal zaien herritar, norbanako eta agintari guztiek bete dezaten eta betearaz dezaten.

EKAINAREN 11KO 6/2014 FORU-ARAUA, ENERGIA ELEKTRIKOAREN EKOIZPENAREN BALIOAREN GAINEKO ZERGARI BURUZKOA

HITZAURREA

2014ko apirilaren 21eko 7/2014 Legearen bidez, Ekonomia-itunaren Batzorde Mistoak Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna aldatzeko 2014ko urtarrilaren 16an hartu zuen erabakia onetsi da.

Ekonomia-itunaren Batzorde Mistoak hartutako erabaki horren edukiak -Batzar Nagusiek 2014ko 2014ko martxoaren 26ko 1/2014 Foru Arauaren bidez berretsi dute erabaki hori, eta aipatutako legeak aldarrikatu du- berekin ekarri du tributu berriak (orain arte gure tributusisteman ez zeudenak) ituntzea, zegoeneko itunduta zeuden beste batzuen ituntze-baldintzak aldatzeaz gainera.

Itundu berri diren tributuetako bat da Energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko Zerga, eta, indarrean dagoen Ekonomia Ituneko 23 quater artikuluan xedatutakoaren arabera, Estatuak une bakoitzean ezarrita dituen funtsezko eta formazko arau berberak erabiliko dira hura eraentzeko. Hori dela eta, xedapen hau eman behar da, zerga berriaren arauketa gure ordenamenduan sartzeko, Ekonomia Itunean ezarritako lotura-puntuak jasota.

Jasangarritasun energetikorako neurri fiskalei buruzko 2012ko abenduaren 27ko 15/2012 Legearen bidez sortu zen zerga hau, eta energia elektrikoaren ekoiztetik deribatutako ingurumen-kostuak barneratzea ekarri zuen. Hala, gure eraginkortasun energetikoa hobetzeko estimulua izan behar du legeak; gainera, baliabide naturalak hobeto kudeatuko ditugula eta garapen jasangarriaren eredu berrian aurrera egiten jarraituko dugula segurtatuko du, ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren ikuspuntuetatik. Gainera, ingurumen-politikak gure tributusisteman txertatzen laguntzen du, ingurumenarekin soilik lotura duten tributuen bidez eta beste tributu batzuei ingurumenaren elementua erantsiz.

Energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko Zerga zuzeneko tributu bat da, izaera erreala duena, eta energia elektrikoaren ekoizteko eta energia hori sistema elektrikoan sartzeko jarduerak zergapetzen ditu. Izan ere, elementu horiek energia elektrikoaren ekoizleen gaitasun ekonomikoa islatzen dute, zeinen instalazioek sortzen eta isurtzen duten energia bideratu ahal izateko garraio- eta banaketa-sareetan inbertsio esanguratsuak eragiten dituzten, eta ingurumenaren gaineko eragin nabarmenak dituzten. Halaber, hornidura uneoro bermatzeko behar diren kostu handiak sortzen dituzte. Zerga sortze-instalazio guztietako ekoizpenari aplikatuko zaio.

Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundearen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauko 55. artikuluko 1. eta 3. zenbakietan xedatutakoa betetzeko, memoria ekonomikoari buruzko txostena eta genero-eraginaren ebaluazioari buruzko txostena doaz foru arau honekin batera.

1. artikulua. Izaera.

Energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko Zerga zuzeneko tributu bat da, izaera erreala duena, eta energia elektrikoa ekoizteko eta sistema elektrikora sartzeko jarduerak, zentraletako barretan neurtuak eta foru arau honetako 4. artikuluan adierazitako instalazio guztien bitartez gauzatuak, zergapetzen ditu.

2. artikulua. Aplikatu beharreko arawak.

1. Ekonomia Ituneko 23 quater artikuluan xedatutakoaren arabera, zerga hau foru arau honetan eta araua garatzen duten xedapenetan xedatutakoa kontuan hartuta galdutako da.
2. Foru arau honen bitartez ezarritakoak ez du eraginik izango barne-ordenamenduaren parte diren nazioarteko itun eta hitzarmenetan.

3. artikulua. Zergaren ordainarazpena.

Zergaren ordainarazpena Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio, energia elektrikoa ekoizten duten instalazioak Bizkaiko Lurralde Historikoan daudenean.

4. artikulua. Zerga-egitatea.

1. Azaroaren 27ko Sektore Elektrikoari buruzko 54/1997 Legearen IV. tituluak aipatzen dituen instalazioetako energia elektrikoa, zentraletako barretan neurtua, ekoizteko jarduerak eta energia elektrikoa Penintsulako, uharteetako eta penintsulaz kanpoko lurraldeetako sistemetara sartzeko jarduerak zerga-egitate izango dira.
2. Foru arau honi dagokionez, bat etorriko dira zentraletako barretan neurtutako energiaren ekoizpena eta alternadore-borretan neurtutako energia, azken horri sortze-prozesuen kontsumo osagarrietan eta sarera konektatzeko punturainoko galerak gutxituta.
3. Legean ageri diren eta berezko izaera duten kontzeptuei eta terminoei dagokienez, sektore elektrikoaren Estatuko araudian xedatutakoa beteko da, legean bertan definitutakoenen kasuan izan ezik.

5. artikulua. Zergadunak.

Zerga honen zergadun izango dira foru arau honetako 4. artikuluan adierazitako jarduerak egiten dituzten pertsona fisiko edo juridikoak eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauko 34. artikuluko 3. zenbakian aipatzen diren erakundeak.

6. artikulua. Zergaldia eta zergaren sortzapena.

1. Zergaldia urte naturalarekin bat etorriko da, non eta zergadunak ekitaldia amaitu aurretik instalazioaren jarduera eteten ez duen. Azken kasu horretan, jarduera uzten den egunean amaituko da zergaldia.
2. Zergaldiaren azken egunean sortuko da zerga.

7. artikulua. Zerga-oinarria.

1. Zergaldian instalazio bakoitzean zentraletako barretan neurtutako energia elektrikoa ekoizteagatik edo sistema elektrikora sartzegatik zergadunak jaso beharreko zenbateko osoa izango da zerga-oinarria.

Horretarako, zenbateko osoa kalkulatzeko, Sektore Elektrikoaren abenduaren 27ko 54/1997 Legean xedatutakotik deribatutako erregimen ekonomiko guztietan zerga-aldian izandako ordainsariak hartuko dira aintzat, baita uharteetako lurraldeetan eta Penintsulaz kanpoko lurraldeetan energia elektrikoa sortzeko eta sistema elektrikora sartzeko jardueren kasurako aurreikusitako berariazko erregimen ekonomikokoak ere.

Lotutako pertsonen edo entitateen artean eragiketak egiten baira, ordainsaria ezingo da izan merkatuko balioa baino txikiagoa, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauan xedatutakoarekin bat. Pertsona edo entitate independenteek lehia askearen printzipioa errespetatzen duten baldintzetan adostuko luketena hartuko da merkatuko balio gisa. Ondorio horietarako, merkatuko balioa zehazteko, abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauan jasotako metodoetako edozein aplikatuko da.

2. Foru arau honetako 4. artikuluan adierazitako jarduerak gauzatzen dituzten instalazio guztietarako kalkulatu da aurreko paragrafoan zehaztutako zerga-oinarria.

Ikusi otsailaren 8ko 1/2022 FDAren 2. artikulua (BAO, otsailak 11), 2022ko ekitaldian zehar energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergaren zerga-oinarriaren eta ordainketa zatikatuen zenbatekoaren zehaztapenari buruzkoa.

8. artikulua. Karga-tasa.

Ehuneko 7ko karga-tasa aplikatuko da zergaren bidez.

9. artikulua. Kuota osoa.

Zerga-oinarriari karga-tasa aplikatzearen emaitza izango da kuota osoa.

10. artikulua. Likidazioa eta ordainketa.

1. Zergadunek, zerga sortu eta hurrengo azaroan, zergaren autolikidazioa egin eta kuota ordaindu beharko dute, Ogasun eta Finantzen foru diputatuak ezartzen dituen arauen eta ereduaren arabera. Horretarako, ekoizpen elektrikoari buruzko behin betiko neurriak hartu beharko dira kontuan.
2. Maiatzaren, irailaren, azaroaren eta hurrengo urteko otsailaren 1etik 25era, zerga-egitatea gauzatzen duten zergadunek urte natural bakoitzeko hiru, sei, bederatzi edo hamabi hileko aldiari dagokion ordainketa zatikatua egin beharko dute, Ogasun eta Finantzen foru diputatuak ezartzen dituen arauen eta ereduaren arabera.
3. Zergaldiaren hasieratik aurreko zenbakian azaldutako hiru, sei, bederatzi edo hamabi hilabeteak amaitu arte gauzatutako energia elektrikoaren ekoizpenaren -zentraletako barretan neurtua- balioaren arabera kalkulatu da ordainketa zatikatuen zenbatekoa, foru arau honetako 8. artikuluan adierazitako karga-tasa aplikatuta, eta aurretik egindako ordainketa zatikatuen zenbatekoa kenduko zaio.

Hala, zergaldian instalazio bakoitzean energia elektrikoaren zentraletako barretan neurtua, ekoizteagatik edo sistema elektrikorik sartzegatik zergadunak jaso beharreko zenbateko osoa hartuko da ekoizpenaren balioetatik.

Dena dela, aurreko urteko instalazio guztietako ekoizpenaren balioa 500.000 eurotik beherakoa denean, zergadunek azaroaren 1etik 20ra arteko likidazio-epea duen ordainketa zatikatua soilik egin beharko dute nahitaez.

Zergadunen batek aurreko urtean gauzatutako jarduerak urte naturala baino gutxiago iraun badu, ekoizpenaren balioa urtebetera hedatuko da.

4. Jarduera urtarrilaren 1a eta gero hasi bada, abian dagoen zergaldiari dagokion likidazioaren konturako ordainketa zatikatua instalazio guztietako ekoizpenaren balioa (zergaldiaren hasieratik kalkulatu) 500.000 eurotik gorakoa den hiruhilekoari dagokion likidazio-epean egingo dira.
5. Ordainketa zatikatua egiteko unean zergadunari dagokion zenbatekoa ezezaguna bada, zergadunak behin-behineko zenbateko bat finkatu beharko du sistemaren operadoreak eta, hala badagokio, Energiaren Batzorde Nazionalak ordainketa-epea hasi aurretik egindako behin-behineko azken likidazioaren arabera.

11. artikulua. Arau-haustek eta zehapenak.

Zerga honi dagozkion arau-haustek Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauan ezarritakoaren arabera sailkatuko eta zigortuko dira.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Bakarra. Arauak indargabetzea.

Indargabetuta geratzen dira foru arau honetan xedatutakoaren aurka dauden maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa

Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean foru arau hau, eta 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Bigarrena

Bizkaiko Foru Aldundiak eta Ogasun eta Finantzen foru diputatuak foru arau hau garatzeko eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak emango dituzte.

Bilbon, 2014ko ekainaren 11n.

Batzar Nagusietako Lehenengo Idazkariak,

JON ANDONI ATUTXA SAINZ

Batzar Nagusietako Lehendakariak,

ANA MADARIAGA UGARTE